

Osakidetzaren Kontratazio Akordio berriaren proposamena. Euskararentzat atzerapauso larria

Osakidetzan euskara eskakizunak egiturako lanpostuei ezartzen zaie, eta "errefuertzo" kontratazio "ebentualak" ez daudenez hoiei lotuak, ez da euskararen ezagutzarik eskatu izan kontratu "ebentual" horiek betetzeko.

Egoera horrek sekulako ondorio kaltegarriak sortu izan ditu euskarari dagokionez. Adibidez, euskara eskakizuna ezarria zuten lanpostuak bete izan dira euskaraz ez zekiten langileekin, edozein zelarik ere zerbitzua: pediatria, informazio guneak...

Egoera konpondu asmoz, **2013. urtean Eusko Legebiltzarrak**, EAJ eta EHBilduk adostutako [proposamena](#) medio, **Osakidetzari eskatu zion euskarari dagokionez, lehenetasunezkoak diren zerbitzuetako kontratazio ebentualetan oro har euskararen ezagutza lehenestea.**

2013ko II. Euskara Planak eskaera hau jaso zuen bere **5.4.g puntuan**, honakoa zehaztuz: ***"Lehenetasunezko unitateetako behin-behineko kontratazioan, oro har euskararen ezagutza lehenetsiko da, betiere herritarraren asistentzia bermaturik. Kontratazio-irizpide horri buruzko xehetasunak Osakidetzako Mahai Sektorialaren Kontratazio Akordioan zehaztu eta aratuko dira, Plana onartu eta ondoko hilabeteetan."***

Zer dira "Lehenetasun mailak"?

Euskara Planean unitateak 3 mailatan banatzen dira:

- 1. Lehenetasuna (edo Lehenetasun gorena): Pediatria, informazio guneak, herri erabat euskaldunetako zerbitzuak...
- 2. Lehenetasunezko unitateak: Osakidetzako unitate gehienak.
- 3. Lehenetasunezko unitateak (edota Lehenetasunik gabe): Osasun Espezialitate unitateak + mantenua, sukaldea, etabar.

Osakidetzako **Lehenetasunezko unitateen artean gehien gehienak II. unitate motakoak dira.**

*Hortaz, azpimarratu behar da, eta Osakidetzako Euskara Planean egiten den banaketaren arabera, Lehenetasun goreneko I unitateez gain **II. lehenetasunezkoak ere "LEHENTASUNEZKO UNITATEAK"** direla.*

2014. urtean Osakidetzak Euskara Planean kontratazio ebentualetaz ezartzen zuena Kontratazio Akordioan txertatzeko [proposamena](#) egin zuen. Honen arabera, **I. Lehenetasunezko unitate guztietan eta II. Lehenetasunezko gehienetan** euskararen ezagutza lehenetsiko litzateke. Proposamen honek ez zuen adostasunik bildu eta ez zen onartua izan.

2016. urtean Osakidetzak beste [proposamen](#) bat egin zuen, kontratu ebentualetan progresiboki euskararen ezagutza lehenesteko kronograma batekin: 2019. urtetik aurrera euskararen ezagutza lehenetsiko litzateke **I. eta II. lehenetasunezko UNITATE GUZTIETAN**. Proposamen hau ere ez zen izan onartua.

Araudi hutsuneak sortzen zituen arazo eta kexen aurrean Osakidetzak [jardun-irizpide](#) batzuk onartu zituen 2017an. Euskara Planean ezarritakoa betez Kontratazio Akordio berria lortu bitartean **behin behinean gutxieneko irizpide batzuk** ezartzen ziren bertan. Irizpide hauen arabera **euskararen ezagutza lehenetsi behar da I. Lehentasun unitate guztietan, eta baita II. Lehentasunezkoetan ere, unitatearen hizkuntz egoeraren arabera.**

Orain, 2021an, Osakidetzaren II. Euskara Planak, eta aurretik Eusko Legebiltzarrak, kontratazio ebentualetan oro har euskararen ezagutza eskatu behar dela ezarri eta 8 urtetara, Osakidetzaren III. Euskara Plana idatzi eta aurrerapausoak eman beharreko unean gaudenean, Osakidetzak Kontratazio Akordio berrirako proposamena aurkeztu die sindikatuei. Proposamen honen arabera **euskara kontratazio ebentualetan kasu gutxi batzuetan soilik izango da beharrezkoa, I. lehentasun unitateetako kontratazioetan soilik.** Hau ezartzen du zehazki:

*“En los nombramientos eventuales destinados a la prestación de servicios en la Unidades tipificadas como de **prioridad I** según el Plan de Euskera vigente, se dará prioridad a las personas aspirantes que tengan acreditado el correspondiente perfil lingüístico hasta que se alcance el porcentaje establecido en el citado Plan de Euskera”.*

Osakidetzako zuzendaritzak onartu nahi duen Kontratazio Akordio berri honen arabera, adibidez, **Hernani eta Ordiziako osasun zentroetako edota Donostia ospitaleko langileen kontratazioetarako egindako kontratu "ebentualetan" oro har ez litzateke euskararen ezagutza lehenetsiko,** kasu isolatu batzutan soilik eskatuko litzateke (informazio guneetan eta pediatriako zenbait lanpostutan soilik).

Azpimarratu behar da kontratazio “ebentual” hauek milaka eta milaka egiten direla urtean Osakidetzan. Sarritan hilabete luzeetako iraupena dute kontratu hauek, langile desberdinen oporraldiak kubritzeko, etabar. Milaka kasutan kontratazio ebentual hauek egiturazkoak izan beharko liratekeen lanpostuak betetzeko erabiltzen dira, eta langile berdina urte luzez egon daiteke lanpostu horretan, aldiro-aldiro luzatzen dioten kontratu ebentualen bidez. Ondorioz, Osakidetzako zuzendaritzak Kontratazio Akordio berriaren bidez **kontratazio hauetan oro har euskararen ezagutza ez eskatzeak ondorio larriak izango ditu Osakidetzako euskararen normalizazio prozesuan.**

LAB sindikatuak Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendaritzari alegazioak igorri dizkio, txosten honetan agertzen diren azalpen guztiekin, eskatuz Euskara Planean ezartzen dena bete dezan eta adieraziz erabat onartezina dela atzerapausoak ematea euskarari dagokionez (are gutxiago maila honetako atzerapauso larria). Zoritzarrez, Osakidetzako zuzendaritzak ez die inolako jaramonik egin alegazio hauei.

Laburbiltzen, Osakidetzak ezarri nahi duen Kontratazio Akordio berriak muzin egiten dio kontratazio ebentualetan euskararen ezagutza aintzat hartzeko herritarren, Arartekoaren eta Eusko Legebiltzarraren eskaerei, Euskara Planean ezarritakoa urratu egiten du, eta gaur egun kontratazio ebentualetan euskara eskatzearen inguruan indarrean dauden irizpideekiko atzerapauso handia da.



Hurrengo laukietan ikus daiteke Kontratazio Akordio berria kontratazio ebentualetan euskara eskatzearen inguruan ezartzen dena aplikatzeak **zein ondorio izango lituzkeen** Lehen Arretan, Ospitaleetako zerbitzuetan eta Unitate Administratiboetan. **Berdez agertzen diren unitateetan euskararen ezagutza eskatuko litzateke, gorritz daudenetan ez.**

OSPITAL UNITATEAK	EREMUAK, LEHENTASUNAK			
	Euskararen ezagutza BAI lehenetsiko da, Euskararen ezagutza EZ da lehenetsiko.			
	100-71*	70-41*	40-21*	20-0*

Harrera, onarpen eta Informazio unitateak	I	I	I	I
-------------------------------------------	---	---	---	---

Zerbitzu medikoak	Pediatriko Larrialdiak	I	I	I	II
	Larrialdi Orokorrak	I	II	II	II
	Haurrak artatzeko unitateak	I	II	II	II
	Adinduak artatzeko unitateak (batez ere Barne Medikuntza eta iktusa tratatzeko eta errehabilitatzeko unitateak)	II	II	II	II
	Ettxeko Ospitalizazioa	II	II	II	II
	Lan Osasuna	II	II	II	II
	Espezialitate mediko-kirurgikoak				

Erizaintza arloko unitateak	Pediatriko Larrialdiak	I	I	I	II
	Larrialdi Orokorrak eta Larrialdi Ginekologikoak	I	II	II	II
	Haurrak artatzeko unitateak	I	II	II	II
	Solairuko eta eguneko ospitaleetako erizaintza-unitateak	II	II	II	II
	Ettxeko Ospitalizazioa	II	II	II	II
	Lan Osasuna	II	II	II	II
	Kanpo Kontsultak	II	II	II	II
	Probak eta Erradiologia (erizainak eta teknikariak)	II	II	II	II
	Errehabilitazioa eta Terapia Okupazionala (erizainak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak eta osasun mentaleko monitorea)	II	II	II	II
	Hemodialisia	II	II	II	II

Asistentzia arloko zeladoreak	II	II	II	II
-------------------------------	----	----	----	----

LEHEN ARRETA UNITATEAK	EREMUAK, LEHENTASUNAK			
	Euskararen ezagutza BAI lehenetsiko da, Euskararen ezagutza EZ da lehenetsiko.			
	100-71*	70-46*	45-21*	20-0*

Harrera, onarpen eta informazioko unitateak	I	I	I	I
Pediatria	I	I	II	II
Haur Erizaintza	I	I	II	II
Haur Odontologia	I	I	II	II
Eskola Osasuna	I	I	II	II
Medikuntza Orokorra	I	II	II	II
Erizaintza Orokorra	I	II	II	II
Lan Osasuna	I	II	II	II
Emakumeentzako Arreta	II	II	II	II
Odontologia	II	II	II	II

UNITATE ADMINISTRATIBOAK	EREMUAK, LEHENTASUNAK	
	Euskararen ezagutza BAI lehenetsiko da, Euskararen ezagutza EZ da lehenetsiko.	
	100-40*	40-0*

Zerbitzu administratiboetan erabiltzaileei arreta eta informazioa emateko unitateak	I	I
Zuzendaritzako idazkaritzak	II	II
Pertsonal departamentuak	II	II
Komunikazioa	II	II
Kudeaketa ekonomikoko unitateak	II	II
Kalitatea-KSU	II	II
Irakaskuntza-prestakuntza	II	II
Informatika	II	II

